

DROGETEN

ITTURRI

Ermuko eta Mallabiko aldizkaria
2025eko UZTAILA · 346 zenbakia

A woman with dark hair, wearing a beige vest over a grey t-shirt and shorts, is sitting on a boat railing. She is holding a microphone in her right hand and a small, round, brown object in her left hand. The background shows a body of water and distant hills under a cloudy sky.

**Jone Redondo,
flyscheko
sekretuen jabe**



IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Adua Aho Kirurgian,
Periodontzian, implantologian.
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgian.
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikan Diplomaturia.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.
Hortz-Estetikan Diplomaturia.
Autran Institutua. Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Doktorea.

Astelehenetik ostiralera:

8:00etatik **22:00**etara

Zapatuetan:

10:00etatik **14:00**etara

Irribarreetan adituak

Etor zaitez gu ezagutzera

Zure beharretara egokitutako finantziazio-planak

JARRAI IEZAGUZU

f Facebooken: Clínica Dental Irazabal **www.clinicairazabal.com**



IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1 esk. - **20600 EIBAR**
Tel.: 943 20 85 52 - **www.clinicairazabal.com**

Bertoko kantuak Herritarron ahotik

Gaia: Erronda-kantua

Zezena dator

(Entzuteko: www.alboka.es)

Zezena dator,
bal-baltza dator,
harrapatzen bazaitxu,
harrapatzen bazaitxu,
bertan-bertan hilgo zaitxu,
bertan-bertan hilgo zaitxu!

Zezena dator arkupetik,
sua dariola adarretik,
trunlara la la, trunlara la la,
Santa Ana kaletik.

La ra la la la ra la la la
la ra la ra la ra la la la.



drogeteniturri.eus



ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale zeharbidea 2, 1.
247 posta-kutxa
943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com
www.drogeteniturri.eus

ERREDAKZIO TALDEA:

Alazne Aiestaran,
Eneritz Aranburu,
Estibalitz González,
Nahia Ruiz Albizuri
eta Dorleta Vidal.

KOORDINAZIOA

ETA MAKETAZIOA:
Dorleta Vidal.

AZALEKO ARGAZKIA:

Piedi Eizagirre.

LAGUNTZAILEAK:

Txabi Arnal, Patxi López eta Valentin
Mugarza.

ARGAZKIAK:

Eneritz Aranburu, Beñat Delgado,
@enganxat, Piedi Eizagirre,
Ermuko Udala, festak.com,
Estibalitz González, Asier Madarieta,
Valentin Mugarza, Marga Pérez,
Jone Redondo, Nahia Ruiz Albizuri,
Ignacio Urreta eta Dorleta Vidal.

PUBLIZITATEA:

943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Eneritz Aranburu, Maren Aguirre
eta Alex Gonzalez.

TIRADA:

2.425 ale.

ISSN:

1133-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/1994.

*Drogeteniturrik ez du bere gain
hartzen aldizkarian adierazitako
iritzien erantzukizunik.*

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



ERMUKO UDALA



MALLABIKO UDALA



Asier Madarieta · Palermo (Italia)

“Palermok irudi dekadentea du, bisitari askorentzat oso erakargarria dena”

Iaz joan zen Palermora (Italia) Asier Madarieta Churruca ermuarra, doktoretza-ondoko laguntza batekin. Etxetik kanpo 10 urte eman eta gero, datorren urtean Euskal Herrira itzuliko da.

Testua NAHIA RUIZ ALBIZURI

Zergatik joan zinen?

Doktoretza tesia amaitu berri nuela, Eusko Jaurlaritzak eskaintzen duen doktoretza-ondoko laguntza bat irabazi nuen, EHUn ikerlari lanetan hasteko. Deialdiaren arabera, kontratuaren lehenengo bi urteak atzerriko unibertsitate edo ikerketa zentro baten egin behar dira. Proiektua proposatzerako orduan Palermoko Unibertsitateko irakasle batekin harremanetan jarri nintzen, berak erabiltzen zuen metodologian interesatuta nengoelako. Behin laguntza jasota, Palermora etorri nintzen ikerketa proiektuaren lehenengo bi urteak egiteko.

Zertan egiten duzu han?

Ikerketa proiektuaren helburua da aztertzea GNSS (GPS sistema Estatu Batuarren mundu mailako baliokidea) datuen bitartez plaken mugimendu tektonikoak eta hauek lurrikaretan duten eragina. Nire proiektuaren ikerketa eremua Iberia eta Afrikako ipar-mendebaldea bada ere, ikerketa-taldearen baitan Italiako, Arabiako edota Himalaiako datuekin ere lan egiten ari gara.

Bertako hizkuntza menderatzen duzu? Saiatu zara ikasten?

Ez dakit menderatzen dudarik esan daitekeenik bai-



**ZUZENBIDE
KONTUAK**
Lege eta
kontu aholkularitza
Izarra Centre eraikina
Tel: 846080080
Mugikorra: 688885435
zuzenbidekontuak@gmail.com

JULEN




**JULEN IZARRA
GARRAIOAK**

**Bidegain kalea 1
48240 BERRIZ
636 958 339**

**AMAIA
HARATEGIA**



Bertoko Okelak
Probaleku 5
Tfnoa. 943 17 05 84
Ermua



IKASTOLA
1968tik Ermua
euskalduntzen



na, bai, hemengo bizitzaren gehiengoa italieraz egiten dut. Sizilieraz, aldiz, hitz gutxi batzuk bakarrik dakizkit. Hemen dialekto bat dela diote, baina nahiko desberdina da. Italieraz gain, gazteleraren edota arabieraren eragin handia du sizilierak. Italierara itzuliz, hasieratik argi nuen ikasi nahi nuela, eta lehenengo hilabetean ingelesez egin ondoren, segituan hasi nintzen italieraz. Hasierako hilabeteetan ikastaro baten parte hartu ondoren, dakidan gehiengoa lankide eta lagunekin hitz eginda ikasi dut.

Sizilierak gaztelaniaren eragina duela esan duzu. Adibideren bat jar dezakezu?

Sizilieraz, hitz askok antz handiagoa dute gaztelaniarekin italierarekin baino: "travagghiari" (trabajar vs lavorare), "cirasa" (cereza vs ciliegia), "aceitu" (aceite vs olio) edo "cascia" (caja vs scatola). Gustokoen dudak hitza "amuni" da, "goazen", "vámonos" edo "andiamo" esan nahi duena. "Amuni" hitzak antza handia du Andaluziako leku askotan "vámonos" esaten duten modura, "ámonoh"; edo katalanezko "amunt" hitzarekin.

Nolakoa da zure egun libre bat?

Bai Palermo bai Sizilia, historikoki, kulturalki zein paisaia aldetik liluragarriak dira, beraz, gauza asko daude egiteko. Dena dela, egun libre arrunt baten, bizikletaz Palermo inguruko mendietan ibiltzea gusatzzen zait, eta iluntzean lagunekin afaldu eta zerbait hartzera irtetea. Palmermon oso giro polita dago.

"Historikoki, kulturalki zein paisaia aldetik, Palermo eta Sizilia liluragarriak dira"



Palermoko hiria eta golkoa Monte Cucciotik ikusita.

Badago zerbait oso desberdina dena?

Zoritzarrez, alderik handiena espazio publikoaren eta ondarearen zaintzan ikusten dut. Egia da ondare historiko eta kulturala handiagoa dela, eta, beraz, lan handia duela, baina nahiko utzita dago. Gauza bera gertatzen da kaleen garbiketarekin. Hala ere, hori dela-eta, Palermok irudi dekadentea du, bisitari askorentzat hain erakargarria dena.

Zein da bertako janari tipikoa?

Siziliako janari tipikoa *arancina* da. Normalean haragiz, baina baita beste gauza batzuek ere betetako arroz-bola, frijitu egiten dena. *Cannoli*-ak ere oso famatuak dira, *ricotaz* egindako gozokiak. Palmermon oso estimatuak dira ere *panino panelle e croccchè*, patata kroketez eta txitxirio-ore frijituz egindako ogitartekoak, edo *pani ca meusa*, txahalaren barearekin eta birikekin egindako ogitartekoa.

Faltan botatzen duzu Ermua?

Palermone bizi baino lehenenago, beste 8 urte egin ditut Granadan. Beraz, bai. Zorionez, askotan joaten naiz edo etxekoekin gozatzeko aukera dut. Gainera, aurtan Palermo-Bilbo hegaldiak jarri dituzte, bidaia asko errazten dutenak.

Ettxera itzultzeko gogorik?

Palermoko estantzia amaitzen denerako ia 10 urte egingo ditut Ermutik kanpo. Zorionez, badirudi 2026an Ermura edo, Euskal Herrira behintzat, bueltatuko naizela. Gainera, gogo handia dut EHUn lanean hasteko.

“*Pinya*-ko eskuetan egoten naizen arren, abila naiz gora igotzen ere”

Beñat Delgado · Casteller-a



Duela urtebete inguru hasi zen Beñat Delgado (Ermua, 1985) *castells*-ak edo giza dorreak egiten, eta gaur egun hiri eta herri ezberdinetan egin izan ditu emanaldiak bere taldearekin: Euskal Herriko Castellers Taldea, hain zuzen ere. Hasiberriak diren arren, bost pisuko dorrea egitea lortu zuten iaz, eta buru-belarri dihardute lanean sei pisukoa egin ahal izateko, hori baita *castell* batek izan behar duen gutxieneko altura.

Testua **DORLETA VIDAL**

Zer dela-eta hasi zinen *castells*ak egiten?

Arreta eman didate beti, egia esan, baina duela urte batzuk lagun baten bikotekidea ezagutu nuen, Georgina, Bartzelonakoa dena. Pare bat bider galdetu nion ea harremanik zeukan *castell*ekin edo haiek egiten zituen norbait ezagutzen zuen, baina ezetz erantzun zidan. Kontua da WhatsAppeko talde bat omen dagoela Euskal Herrian bizi diren katalanez osatutakoa, eta iazko ekainean deialdia egin zuten *castells*ak egiteko taldea sortzeko. Georginak gonbidapena bidali zidan, eta han agertu nintzen, lehengo bileran. Ez nintzen zoro bakarra izan, agertu ziren beste gutxi batzuk ere Kataluniarekin harremanik ez zutenak.

Lehen bilera hura gogoratzen duzu?

Bai, 30 pertsona inguru elkartu ginen Santutxuko Karmela espazio autogestionatuan, Bilbon: adin, genero eta gorpuzkera guztietakoak. Izan ere hori da gazteluek daukaten gauza polit bat: aproposak direla pertsona guztientzat, oso jarduera integratzailea da. Hiru hilabete geroago, irailean, Euskal Herriko Casteller Taldea sortu genuen, eta gaur egun 60 bazkide gara eta 180 lagunetik gora.

Zein da giza dorre hauen jatorria?

Oso aspaldi sortu ziren, Valentzian, *muixeranga* izenarekin. Berez dantza bat zen, puntu erlijiosoa zue-

na, baina ohitura hori Kataluniara hedatu zen XVIII. mendearen bueltan, Tarragonara batez ere, *castell* izenarekin eta egungo ezaugarriekin.

Diziplina artistikoa da, edo esango zenuke kirola ere badela?

Gauza ezberdinak nahasten ditu, baina dantzan dauka jatorria, beraz, kulturarekin lotuta dagoela esango nuke, kirolarekin baino gehiago. Hori bai: kirola ez den arren, oso nekagarria da!

Zenbat pisu izan behar ditu gutxienez gaztelu batek?

Sei. Guk oraindik ez dugu lortu inoiz sei pisuko gaztelu bat egitea, baina iazko abenduan bosgarren pisura heldu ginen, beraz, uste dut seigarren pisua laster lortuko dugula: gure taldeko leloa da: “Volem ser colla de 6!” (6 pisuko taldea izan nahi dugu!). Normalean goiko aldean umeak egoten dira, eta gure taldean badaude umeak, beraz, alde horretatik zortea daukagu. Horiek puntan ipinita lortu genuen bost pisu egitea, baina beste behin nagusiekin soilik egin genuen: eta

“Cap de collak aginduak ematen ditu, eta eraikitakoa desegitea erabaki dezake, ezegonkorra bada”



Beñat Delgado, taldeko kide baten gainean, maiatzaren 25ean Errenterian egindako tailerrean.

sekulako aldea dago zaman! Nahiz eta igotzen diren pertsonak argalak izan, behean daudenek asko igartzen dute aldea: dorrea zenbat eta altuagoa izan, orduan eta jende gehiago behar da; bestalde, zenbat eta jende gehiago pisu bakoitzean, dorrea egonkorragoa da, baina pisu gehiago hartzen du... Oreka bilatu behar da. Guk normalean hiru pertsona jartzen ditugu pisu bakoitzean, ez daukagulako jende gehiago!

Gutxieneko denbora egon behar da gaztelua eginda ontzat emateko?

Ez, kontrakoa. Nahiko arin egin behar da dena, bestela azpian daudenak nekatu egiten dira. Asko lantzen dugu hori entseguetan: taldea koordinatuta egon behar da, eta aginduak ematen dituen pertsonak esandakoa bete. Pertsona horri *cap de colla* deitzen diogu, eta berak erabaki dezake ere eraikuntza desegitea, ezegonkorra dela ikusten badu. *Cap de collak* katalanez ematen ditu aginduak. Horrez gain, *El toc de castells* deitzen den musika jotzen da gaztelua eraikitzen ari garen bitartean, eta musika horrek adierazten digu gaztelua zein fasetan dagoen. Danborrarekin eta *grallarekin* (dulzainaren estiloko musika-tresna) jotzen dira doinuok.

Dorrea egiten duzuenean, zein lekutan egoten zara?

Gure *colla* ez da oso handia momentuz, beraz, lekuak ez daude banatuta, eta ia leku guztietan egon naiz. *Tronc* deitzen zaion zatian egoten naiz teknika lantzen dugunean (erdiko zatian, alegia), eskalatzaila naizelako eta abila naizelako igotzen; baina gaztelua egiten dugunean behean egoten naiz, *pinyan*, altuegia naizelako gorago egoteko. Altuegia bazara, gorago doazenek esfortzu handiagoa egin behar dute zure gainera igotzeko, eta umeei, adibidez, kostatu egiten zaie. *Pinyako* eskuetan egoten naiz normalean, *agulla* edo lateral postuetan. *Pinya* handietan 100 lagun edo gehiago egon daitezke, eta bakoitzak bere posizioa eta funtzioa du, eta sekulako beroa egiten du bertan, oso estu gaudelako!

Terminologia berezia erabiltzen duzu...

"Jarduerari lotutako hitz guztiak katalanez esaten ditugu, elkarlana suertatuz gero, ulertu ahal izateko"

"Jarduera honek badauka arriskua, eta sustoren bat izan dugu taldean jadanik"



Beñaten taldea, 2024ko udazkenean Ermuan egindako saioan.

Bai, taldean adostu genuen euskaraz eta katalanez hitz egingo genuela, eta izen propio guztiak eta jarduerari lotutako hitz guztiak katalanez esango genituela, adibidez posizioak: *agulla*, *baia*... Horrek zentzua dauka, Kataluniako beste *colla* edo talde batekin elkarlana egitea suertatuz gero, elkar ulertu ahal izateko.

Ondo moldatzen zara katalanez?

Bueno, ikasten ari naiz...

Zenbatero biltzen zarete entseatzeko?

Asteburuero entsegu orokorrak egiten ditugu, bizpahiru orduz. Gainera, astean zehar, entsegu txikiagoak egiten ditugu, zonaldeka banatuta.

Bilbon entseatzeko jarraitzen duzue?

Karmelako kideek asko lagundu ziguten, gure lehen bilerak eta entseguak bertan egiteko aukera izan genuelako, baina gaur egun ez daukagu leku finkorik: Bilbo, Gasteiz, Donostia, Ermua, Oñati... Leku altuak behar ditugu, eta Ermuko plazan dagoen aterpea, adibidez, oso aproposa da entseatzeko, erpinetan dauden barrak oso lagungarriak direlako beroketa egiteko. Beste batzuetan, farolak erabiltzen ditugu.

Nola antolatzen dituzue entsegu-saio horiek?

Lehenengo eta behin, beroketa egiten dugu. Barrak erabiliz, kide batzuk beste batzuen gainera igo eta

jaisten dira. Gero *castellaren* zatiak egiten ditugu. Adibidez, *pinya* gabe, bigarren pisutik gorakoa egin. Edo *pinya* lantzeko ariketak, goian pisu gutxi dugularik. *Pinya* gabeko frogak, ezegonkorrak izan daitezke, eta inguruan jendea egon behar da, norbait jausiz gero eutsi ahal izateko.

Zein ezaugarri izan behar da *casteller* ona izateko?

Castellersen leloa da: *força, equilibri, valor y seni* (hau da: indarra, oreka, ausardia eta sen ona), baina gazteluan duzun postuaren arabera, horietako ezaugarri bakoitzak garrantzi ezberdina du. Horrez gain ez da ezer berezirik behar. Dena den, egia da taldeko asko eskalatzaileak garela. Ez dauka jarduerarekin harreman zuzen-zuzena, baina askotan elkartzen gara eskalatzerara joateko.

Esango zenuke jarduera arriskutsua dela?

Bai, apur bat bai, eta azken urteotan, gorako pisuetara doazen umeez eta helduek kaskoa eraman behar dute. Nik dakidala, *castellsen* historian hiru hildako egon dira. Gura taldean ere susto txikiren bat izan dugu, baina ez da ezer larria izan.

***Castellsak* modan daude?**

Baietz esango nuke, eta Euskal Herriko jaietan ere gero eta ohikoagoa da horrelako emanaldiak ikustea.

Erakustaldiaren bat egin duzue dagoeneko?

Bai, erakustaldiak eta tailerrak. Erakustaldiak Gasteizen eta Bilbon egin ditugu; tailerretan, berriz, ikasi eta parte hartzeko aukera egoten da edonorrentzat. Esaterako, Ermuan egon ginen iazko udazkenean, plazan. Deialdia zabaldu genuen herriko jendea batzeko, eta parte-hartzaile errekorra lortu genuen. Azken emanaldia duela hilabete egin genuen, Lasarteko jaietan, eta hemen ere jendeari eman genion taldera batzeko aukera. Datozen hilabeteotan, emanaldia egingo dugu Gasteizen, uz-



Euskal Herriko Casteller Taldeak "kalimotxo" koloreko alkandora erabiltzen du. Argazkian, lehen urteurreneko Diada, ekainaren 7an, Bilbon.

tailaren 26an, Xicots de Vilafranca taldearekin batera (hauek Ermuan izango dira uztailaren 27an); abuztuaren 15ean, Donostian, Castellers de Lleida taldearekin; eta irailaren 13an, Legazpin, Castellers de Viladecans taldearekin. Horrez gain, abuztuaren, tailerrak egingo ditugu: 13an, Donostiako Piratak mugimenduarekin batera; 23-24an, Bilboko Konpartsekin; eta 30ean Kuartangon, eta saio hauek jendeari irekita egongo dira. Bestela ere, gurekin harremanetan jarri nahi dutenek ehcastellertaldea.eus webgunera jo dezakete.

Etorkizunean jarraitzeko asmoa duzu?

Bai, oso gustura nago eta oso jende jatorra ezagutu dut. Jarduerak harrapatu egin nau!

Ferretería
ANBOTO
Burdindegia

Orain
KOTXKO GILTZEN
KOPIAK ere
egiten ditugu

943 17 69 76
607 33 11 77

ZUBIAURRE, 25
ERMUA (BIZKAIA)

www.ferreteriaanboto.es

Torrealdy

ZURE FINANTZA-OSASUNERAKO BAZKIDE ESTRATEGIKOA

ZERGA, LAN ETA KONTABILITATE AHOULKARITZA

ERMUA

Bitsi-denda Tailer propioa Edoja-denda

Senén
1978

Diseinuak eta kalitateak
bereizten gaituzte

San Pelayo zaharbidia 4 ERMUA (48240) BIZKAIA
www.joyeriasenen.com - joyeriasenen@gmail.com

ITURGINTZA - GASA - BEROKUNTZA
PALACIOS SM

ENPRESA INSTALATZAILE BAIMENDUA
GREMIOEN KUDEAKETA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

San Pelayo 26, behea · Ermua (Bizkaia)

info@palaciosfontaneria.com / www.palaciosfontaneria.com

660 72 95 03 · 659 75 74 59 · 943 53 92 23

RIF

ITURGINTZA
KONPONKETAK

Marques de Valdespina 16
ERMUA
605 71 10 81

“Agustin ehizara eta ni gimnasia eta yogara hasiko gara irailetik aurrera”

Asun Garitagoitia eta Agustin Udabe · Jubiletzeko tabernako arduradunak



29 urte, urte asko dira, baina konturetu orduko pasatu dira Jubiletzeko tabernako ardura Asunek eta Agustinek hartu ebenetik. Irailetik aurrera ez doguz barraren betiko alderdixen ikusiko, jubilau egingo dira Jubiletzetik.

Testua **ENERITZ ARANBURU**

Neskatotan hasi zan Asun tabernan lanien, Trabaku Goikuen. Sasoi bardintsuen eza-gutu eban Agustin, 17 urterekin Mallabiko neskak parrandara Itziar aldera jueten zirenien. “Biherra egin eta Txixarrora jueten ginen ahal zan danetan”. Orain 45 urte eza-gutu ziren eta “uztailan 26xen beteko dira 40 urte ezkondu ginela”. Mallabire ezkondu ziren, Orrospengo baserrire. Bastida tabernan jardun ebien lanien lehenengo, 13 urtetan eta seme bi euki ebiezan, Iraitz eta Jokin. Aurten bete dira 29 urte Mallabiko Jubiletxie hartu ebienetik eta “plazo bat ipini biher zala pentsatu neban, eta etorri da plazuori”. Belaunetatik txarto dabil itxuraz Asun, “zortzi, hamar, hamabi ordu biherrien, denpora asko egitten dot tente eta nekatute nago ya”. Irailetik aurrera bada, “pasiatu, bueltatxo bat emon... Agustin ehizara eta ni gimnasia eta yogara hasiko gara”, dino Asunek.

Bost urteko kontratue izengo da. Udalak lizitazianuan barruen eskakizun batzuk betetzeko agintzen dau. Tabernako biherraz gain, atezaintza zerbitzue



Mallabiko Udalak uztail hasieran zabaldu eban jubilatuen etxeko tabernie, kontserjeritza eta garbiketa zerbitzue kudeatzeko lizitazinue.

be emon biher dau Jubilatuen Etxeko arduradunek eta instalazinuek egunero kudeatuko dauz. Instalazinuen garbiketie be bere gain hartuko dau, ezkatza, tabernie, aretue eta komunek. Horrez gain, Jubiletzeko kudeaketaz arduretuko dan pertsoniek instalazinuan mantentzie be egin biherko dau, elektrizitatie, berokuntza, ur-hornidura, aireztapen sistemie, alarmie, sutien kontrako sistemie eta tabernako altzarixek.

Taberna moduen funtzionatziaz gain, Jubilatuen elkartiek hainbat ekitaldi antolatzen dittu urtien ziherr goitza honetan. Hitzaldixek, merixendak, ikastaruek eta abar. Arratsaldero karta jokora hurreratzen danik be bada. Adin desberdinetako jentiaeren topaleku izen da beti Jubiletzie, herriko jaixetan eta jai egunetan, Gabonetan, Karnabal eta abarretan. Hiletak suertatu direnetan be, "Mallabiko etxe danetakuek ez badie, etxe gehixenetako hildeko senitartekuen aldeko luntxek egin dira hamen", esan dosku Asunek.

Funtzionamendu-ordutegixek

Mallabiko Udalaren lizitazinuek ordutegi finko batzuku markatzen dittu Jubilatuen etxeko funtzionamentuari dagokixonez.

- Lanegunetan, tabernie eta zerbitzuek gehixenez 10:00etatik 22:00etara egongo dira zabalik.
- Asteburuetan eta jai bezperetan: Barixeku, zapatu eta domeketan eta baitte be jai bezperetan, 24:00xek arte egongo da zabalik.
- Udako ordutegixe: ekainien, uztailien eta abuztuen,



Mallabiko Jubilatuen Etxeko kanpoko aldea.

lanegunetan 23:00ak arte egongo da zabalik.

Terrazako zerbitzue eta musika tresnak 22:00ak arte erabili ahal izengo dira, erabiltzailiei eta inguruko bizilagunei eragozpenik ez egitteko.

Lizitazinuek jasoten dabenez, astien egun bat jai hartzeko eskubidie dauke orain eta 3 asteko oporrak, abuztuen izen ezik. Tabernakue "bizitza gogorra da", dinosku Asunek, "hasieran ez geunken deskantsurik".

Lizitazinora aurkeztu nahi izen dabene pertsoniek edo enpresek euren proposamenak era elektronikuen aurkeztu biher izen dabez Euskadiko Eskaintza Publikoko



FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOA
INPRIMAKETAK KAMISETATAN

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89



Krabi
 Ileapaindegia
 Estetika

Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA

"Eskerrak Idurrei eta Iraitzi, ni tortilak eitten bai, baina ordenadoreetan ezebez!"

Udalak hainbat proposamen jaso izan ditu, baina oraindik ez da esleipena jakinarazi

Plataforman bidez. Aurkezteko epie uztailaren 9xen amaittu zan. Asunek eta Agustinek be urtietan egin



biher izen dabez holan eskakizunek, "eskerrak Idurrei eta Iraitzi, ni tortilak eitten bai baina ordenadoreetan ezebez!", dinosku Asunek barrez.

Lizitazino honen helburue Jubiletxien eskeintzen diren zerbitzuen kalitate bermatzie eta adinekuen kolektibuen parte hartzie eta ongizatie herrixen bultzatzie da.

Jakin ahal izen dogunez, hainbat proposamen jaso dauz Udalak, baina lerro honeek idazten diherdugun momentu honetan, oraindiño ez dakigu nork eukiko daben datozen bost urtietan Mallabiko Jubiletxeko kudeaketian ardurie.



SAGARDUI
poltsak

Zubiaurre 20 · ERMUA · 943 170305

HARATEGIA - URDAITEGIA

MIGUEL

BERTAKO OKELAK

ETXERAN EGINDAKO
TXORIZO
TXISTORRA
ODOLSTE
ETA
KROKETAK

PROBALEKU 3 - 943 170565
ERMUA

Psikologia
Ongizate pertsonalerako zentroa

GUZTIOK

Nahia Rojo Bustindui
Psikologoa eta Sexologoa

Zubiaurre 40 · Ermua
Hitzordua: 688 85 18 95

uriarte asesores ✓

Aholkularitza fiskala
eta lege aholkularitza

Komentukoa 3 behea · Tel. 943 179 040 · Faxa 943 179 197

LEIRE RASCO

BIZARTEGIA
ILEAPAINDEGIA
943 17 17 96

Instagram: @LEYTHEBARBER

C/GOIENKALE NS
ERMUA (BIZKAIA)

Mallabitar eta ermuar ugarik parte hartu dute azkenaldian burutu diren mendi lasterketetan

Testua **DORLETA VIDAL**

Azken asteotan lasterketa ezberdinak burutu dira Euskal Herriko mendietan, eta hainbat mallabitar eta ermuar bertan izan dira indarrak neurtzen. Uztailaren 12an eta 13an Ehunmilak, Goierriko Bi Handiak eta Marimurumendi lasterketak egin ziren, eta Aitor Garitagoitia eta Lorea Totorika mallabitarrek 5. postuan heldu ziren helmugara, proba ezberdinetan. Garitagoitiak G2H proban parte hartu zuen (90 kilometro eta 5.500 metroko desnibel positiboa), eta 12:17:28 behar izan zuen ibilbidea egiteko. Totorikak, aldiz, MMM maratoian jardun zuen (42 kilometro eta 2.300 metroko desnibel positiboa), eta 4:49:38 izan zen bere marka.

Ermuarrei dagokienez, Jon Unanuek eta Iker Lópezek Ehunmilak ultratrailean parte hartu zuten (aurten probak 125 kilometro izan ditu, eguraldi txarrak eraginda), eta Unanuek 136 postuan heldu zen (26:59:51); Lopez, aldiz, helmugara heldu baino lehen erretiratu zen. G2H proban, hurrengo ermuarrak aritu ziren: Iñaki Arrizabalaga, 13:50:50 (39. postua); Mikel Prol, 14:13:24 (51. postua); Hector Petite, 16:59:25 (177. postua); Jon Arana, 17:07:05 (183. postua); Miguel Ruido, 17:10:31 (184. postua); eta Ander Bouzo, 20:42:09 (287. postua). MMM maratoian egon ziren: Oier Bei-

tia, 4:27:52 (34. postua); Jokin Ugarteburu, 4:45:52 (59. postua); eta Aitor González, 4:55:38 (73. postua).

Asteburu berean, Zaldibarko III. Zaldutrail lasterketa burutu zen, eta hemen ere Mallabiko eta Ermuko ordezkariak egon ziren. Lasterketa luzean (19 kilometro), Iñigo Pradera (1:55:35), Jesus Nogales (2:54:04) eta Idurre Galarraga (2:10:42) mallabitarrek aritu ziren. Ermuarren artean, hamabi lagunek hartu zuten parte lasterketa luzean eta zazpik laburrean (14 kilometro).



Lorea Totorika mallabitarra MMM maratoian. Arg.: festak.com

**Trastelekuak
partikularrentzat**



**Biltegiak
enpresentzat**

Gipuzkoa etorbidea 19 · Ermua
621 325 477 / info@lekubox.com
www.lekubox.com

DG

Horacio Decoración
TAPITERIA - ALIZABIAE - OSAGARRIAE



Vi Centenario 10 · Ermua
943 03 15 80 / 688 61 06 38
www.dghoraciodecoracion.com



Jon Albizu
Ainhoa M. Goitandia

Extremadura zeharbidea z/g
48260 ERMUA (Bizkaia)
Tel.: 943 174 505

Andra Mari jaiak 2025

abuztuaren 14tik 16ra

Abuztuaren 14a, osteguna Umeen eguna



18:00
Apar festa parkean.



21:30
Pilota partiduak Mallabia I Kirol Etxean:
Urrutikoetxea-Morgaetxebarria // P. Etxeberria-Tolosa
Ezkurdia-Iztueta // Elordi-Albisu (Masters CaixaBank)

Pilota partidurako sarrerak

Abuztuaren 1etik 13ra bitartean salgai.

Non: Udaletxean

Prezioa: 18 euro (langabeentzat, ikasleentzat, jubenatuetzat eta pentsiodunentzat, 12 euro. Frogagiria erakutsi beharko da).

Partidu egunean txartel-leihatila 21:00etan zabalduko da. Sarreren prezioa 25 euro izango da.

23:00
Erromeria Lehian taldearekin plazan, euria bada, parkeko aterpean)

11:30-13:00
Mallabiko trikitilariak kaleak girotzen.

12:00-14:00 / 16:00-18:00
Umeentzako haur parkea herriko frontoian eta parkean.

19:00
Jaien hasierako txupinazoa udaletxeko balkoitik. Ondoren kale animazioa Hamarru elektrotzarangarekin.

19:30
Txokolatada plazan (euria bada, parkeko aterpean).

Abuztuaren 15a, ostirala Andra Mari eguna

11:00
Meza Jasokunde parrokian.

12:30
Mallabiko dantza-riak herriko frontoian.

13:00-15:00
Erromeria ibiltaria
EinGO taldearekin.



17:00
Tute txapelketa Kontzejuzarrean.
Izen-ematea: 10 euro bikoteko.
Sariak: 1. saria: 120 euro eta garaikurra; 2. saria: 100 euro; 3. saria: 80 euro; eta 4. saria: 60 euro.

17:00
"Harri Txikia" Harri-jasotze Saria herriko frontoian.

Gizonezkoen XXXV. Saria:
100 kiloko zilindro zaharra eta 100 kiloko bola.
Parte-hartzaileak: Jon Gisasola "Zelai V" (Mallabia, Bizkaia), Eneko Bilbao (Kortezubi, Bizkaia), Unai Osa (Ondarroa, Bizkaia), Aritz Aranguren "Norde" (Azkoitia, Gipuzkoa), Mikel Lopetegi "Urre" (Zarautz, Gipuzkoa), Xabat Olaizola (Zarautz, Gipuzkoa), Hodei Amezkola (Etxebakoitz, Nafarroa) eta Unai Urkiola (Leitza, Nafarroa).

Emakumezkoen V. Saria:
62,5 kiloko zilindro zaharra eta 62,5 kiloko bola.
Parte-hartzaileak: Eider Garcia Durana (Baroja, Araba), Sara Jiménez de Aberasturi (Maeztu, Araba), Patricia Martin (Bilbo, Bizkaia), Leire Olea (Gernika, Bizkaia) eta Ane Cestau (Leitza, Nafarroa).

Sariak: 1. saria: 900 euro, garaikurra eta txapela; 2. saria: 750 euro eta garaikurra; 3. saria: 600 euro eta garaikurra; eta 4. saria: 500 euro.

Gainerako parte-hartzaileentzako 300 euroko dieta.

19:30

"Ez da kasualitatea" bertso saio musikatua plazan (euria bada, elizpean).

Bertsolariak: Ane Labaka, Maider Arregi, Eli Pagola eta Miren Amuriza. Gai-jartzailea: Iruri Altzerreka. Musikariak: Araitx Bizkai eta Oihana Landa.

22:30

Janus
Lester
parkean.



Abuztuaren 16a, larunbata San Roke eguna

12:00

Meza Jasokunde parrokian.

11:00-14:00

Paella eta Marmitako lehiaketak plazan.

Izen-ematea 11:30ean.

Sariak:

Marmitakoa: 1. saria: 110 euro; 2. saria: 55 euro.

Paella: 1. saria, 110 euro; 2. saria, 55 euro.

Mallabiko trikitilariak animatuko dute giroa.

14:00

Paella eta marmitako lehiaketako sariak banatuko dira.

XXIV. Paella eta XII. Marmitako lehiaketak oinarriak

Ez dago paella edo marmitakoa egiteko derrigorrezko osagairik.

Marmitakoa 13:00etarako aurkeztu behar da eta paella 13:30erako, epaimahaiko kideek dastatu eta sariak banatzeko.

Lehiaketa herriko plazan egingo da eta bakoitzak bere sua ekarri beharko du (butanoa edo barbakoa). Ezin da sua lurrean egin.

Bazkarirako, parte-hartzaileek ekarri beharko dituzte platerak, edalontziak eta mahai-tresnak.

14:15

Jubilatuen bazkaria Kontzejuzarrean.

16:00

Tolin mariatxia jubilatuentzat Kontzejuzarrean.

17:30

Kuadrillen arteko jolasak Gazte Asanbladak antolatuta. Saria: pintxotarako 20 txartel.

20:00

Txerri errea (euro bat) eta sagardoa doan parkean.

20:30

Erromeria Luhartz taldearekin plazan (euria bada, parkeko aterpean).

Ondoren, DJ Maria Blessive parkean.

Enter
INFORMÁTICA
SALMENTAK
IRAKASKUNTZA
ZERBITZU TEKNIKOA
VI. Mendeurrena 19, behea
943 17 90 37
enter@informaticaenter.com

solozabal
tabakoak
torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33

Proba-Leku
Nleapaindegia - Estetika
Probaleku 3, 1A
Tel.
943170542

Santixauak 2025

Uztailaren 14tik 27ra
Datozen orriotan, 24a eta 27a bitarteko egitaraua

Uztailaren 24a, osteguna

19:00 TXUPINAZOA eta ohiko KALEJIRA Irulitxa eta New Tocos musika bandek eta Brincadeira batukada taldeak alaituta, Orbe Kardinalaren plazan.

19:00-01:00 PUNTO MOREA Patxi plazan.

22:00-03:00 TECHNO JAIALDIA Aitor Ronda, Ash eta Droix Djekin, Martxoaren 8a plazan.

23:00 DANTZALDIA Vulkano Show orkestrarekin, Orbe Kardinalaren plazan.

01:00-03:00 PUNTO MOREA Erdikokale 5ean.

Uztailaren 25a, ostirala

7:00 TXOKOLATE-JANA, Orbe Kardinalaren plazan.

7:30 BARRUS partidak, Orbe Kardinalaren plazako pilotalekuan.

8:00 BIGANTXAK Ongaraiko Eskolako patioan.

12:00-14:00 eta **17:00-20:00** 2 eta 4 urte bitarteko HAURRENTZAKO MINI PARKEA, Kaltxango plazan.

12:00-14:00 eta **17:00-20:00** HAURRENTZAKO PARKEA, San Martin plazan.

12:30 MEZA NAGUSIA patroiairen omenez, Santiago Apostoluaren elizan.

12:30 HERRI-KIROL ikuskizuna, Orbe Kardinalaren plazan.

Probak eta parte-hartzaileak:

HARRI-JASOTZAILEA: Jon Gisasola.

AIZKOLARIAK: Hodei Ezpeleta "Bihurri" eta Etxe-beste.

TXINGAK ETA YUNKE: Ainhoa Larrinoa.

IPARRALDEKO JO-KOAK: Karlos Aretxabaleta eta Mikel Agirre.



12:30 KALEJIRA Joselontxos txarangaren eskutik.

12:30 KALEJIRA Ustekabe txarangaren eskutik.

17:00 PROFESIONALEN ARTEKO ESKUPILOTA PARTIDAK, Aritzemendi pilotalekuan.

19:00 Mugartea taldearen **MARGO KOADROEN ZOZKETA**, Zubiaurre kalean.

19:00 ERRALDOI ETA BURUHANDIEN KALEJIRA Ondalan konpartsaren eskutik, Orbe Kardinalaren plazatik irtenda.

19:00 KALEJIRA Joselontxos txarangarekin, Orbe Kardinalaren plazatik irtenda.

20:00 LARRAINDANTZA, Orbe Kardinalaren plazan. Nahi duten guztiek parte hartu ahal izango dute.

20:30 EUSKARAREN ALDEKO TOPA-KONPROMISOA, Orbe Kardinalaren plazan.

22:00-01:00 PUNTO MOREA Patxi plazan.

22:30 "Glubs" KALE IKUSKIZUNA, Yllana konpainiaren eskutik, San Pelaioiko plazan.



niaren eskutik, San Pelaioiko plazan.

23:00 Nueva Alaska orkestrak **DANTZALDIA** giro-tuko du, Orbe Kardinalaren plazan.

01:00-06:00 PUNTO MOREA Erdikokale 5ean

Uztailaren 26a, larunbata

7:00 TXOKOLATE-JANA, Orbe Kardinalaren plazan.

7:30 BARRUS partidak, Orbe Kardinalaren plazako pilotalekuan.

8:00 BIGANTXAK, Ongarai Eskolako patioan.

12:00-14:00 eta 17:00-20:00 Bi eta lau urte bitarteko **HAURRENTZAKO MINI PARKEA**, Kaltxango plazan.

12:00-14:00 eta 17:00-20:00 **HAURRENTZAKO PARKEA**, San Martin plazan.

12:00 NAGUSIEI OMENALDIA eta Nagusien Etxeak antolatutako lehiaketa ezberdinetako irabazleei **SARRIAK BANATZEA**, Orbe Kardinalaren plazan.

12:00 KALEJIRA Guanajuatoko Imperial Mariachiekin. **13:00**etan **KONTZERTUA** eskainiko dute, Orbe kardinalaren plazan.

12:00 Emakumezkoen **BOLO PALMA IV. TXAPELKETA**, San Pelaioiko bolatokian.




Correduría de Seguros, S.L.

ermua@altaldi.com

info@inmojs.com



Probaleku 8 · ERMUA 943 17 01 43 · 943 17 18 02



Ondo pasa Santixauetan!!

688 61 98 96
zeharkale 12 bajo
48260 ERMUA

IRENE ESQUÉ col 1666

EGOITZ FORMOSO col 1675

12:00 KALEJIRA Latuna Bando txarangarekin.

14:00 Nagusien Etxeak HERRI BAZKARIA eskainiko die aitona-amona bazkideei, Merkatu Plazan.

18:00 ESKU-PILOTA partidak: afizionatu kategoriako nesken binakako partida, eta afizionatu kategoriako mutilen binakako partida, Orbe Kardinalaren plazan.

19:00 Pontx pailazoak "Denok plazara" UMEENTZAKO IKUSKIZUNA eskainiko du plazan.

19:00 KALEJIRA Alboka Musika Eskolako txarangak alaituta.

19:00 KALEJIRA Ermuko txarangen eskutik.

20:00 LARRAINDANTZA, Orbe Kardinalaren plazan.

20:00 KALEJIRA Rockalean taldearen eskutik.

22:00- 3:00 ROCK JAIALDIA Lóstregos, Empire of Disease, Frakture eta Norbac, Martxoaren 8a plazan.

22:30 Deabru Beltzak taldeak "Les tambeurs de feu" KALE IKUSKIZUNA eskainiko du, San Pelaio plazan.

23:00 Séptima Avenida Orkestrak DANTZALDIA alaituko du, Orbe Kardinalaren plazan.

01:00-06:00 PUNTO MOREA Erdikokale 5ean.

Uztailaren 27a, igandea

7:00 TXOKOLATE-JANA, Gaztela eta Leoneko Kultur Etxeak eskainita, Orbe Kardinalaren plazan.

7:30 BARRUS partidak, Orbe Kardinalaren plazako pilotalekuan.

8:00 BIGANTXAK, Ongarai Eskolako patioan.

11:00-12:30 Arroz-banaketa Orbe Kardinalaren plazan eta, ondoren, PAELLA LEHIAKETA herrikoari ekingi zaio.

11:00 SARDINA BANAKETA nahi duen guztiarentzat, Martxoaren 8a plazan.

12:00-14:00 eta **17:00-20:00** Bi eta lau urte bitarteko HAURRENTZAKO MINI PARKEA, Kaltxango plazan.

12:00-14:00 eta **17:00-20:00** HAURRENTZAKO PARKEA, San Martin plazan.

12:30 KALEJIRA Irulitxa txarangen eskutik.

13:00 KALEJIRA Macjeara's Jazz bandaren eskutik.

13:00 CASTELLS ERAKUSTALDIA Els Xicots de Vilafranca *collaren* eskutik.

14:00 Paella lehiaketara aurkeztutako platerak DASTATUKO DIRA eta ondoren ohiko HERRI BAZKARIA.



ASTARLOAN
**GOXO
GOXO**
Kafé & Deliss
Tel.: 943 17 46 12



infrinu
taberna
Kardenal Orbe plaza
Ermua
www.infretaberna.com 943174584



Menua, kaxolak, razioak,
pintxoak, ogitartekoak,
hanburgesak...
Plater konbinatuak
10 eurotik aurrera!
Tel. 843 630 623
ERMUA

18:00 ERROMERIA Lotxo taldeak alaituta, Orbe Kardinalaren plazan.

19:00 KALEJIRA Irulitxa txarangaren eskutik.

19:00 KALEJIRA Macjeara's Jazz bandaren eskutik.

19:00 Paella lehiaketako epaimahaikideek IRABAZ-LEAK jakinaraziko dituzte eta SARI-BANAKETA egingo da, Orbe Kardinalaren plazan.

19:15 AURRESKUA ETA LARRAINDANTZA nahi duten guztiek parte hartu ahal izango dute, Orbe Kardinalaren plazan.

20:00 ERROMERIA Lotxo taldeak alaituta.

20:30 KALEJIRA Artistas del Gremio bandarekin.

22:30 Irulitxa musika-bandaren ONGIETORRIA Orbe Kardinalaren plazan.

23:00 Ongaraiko parkean SUZIRIAK Valecea pirotekniaren eskutik. Ondoren, KALEJIRA Orbe Kardinalaren plazaraino eta bertan AGUR JAUNAK abestuko da, aurtengo jaiei agurra emateko.

23:30 JAIEN AMAIERA La Perra Blanco taldearen kontzertuarekin, Orbe Kardinalaren plazan.

Txosnagunea

TXOSNAGUNEAK 2025

UZTAILAK 24, EGUENA

12:00 HERRI APAINKETA
16:30 TXOSNEN IREKIERA
TXOPINAZOA 17:30

Kontzertutxoak 22:00

UZTAILAK 25, BARIKUA

13:30 KARROPOTEOA
ARGAZKITXOA 14:45
15:00 BAZKARITXOA
16:30 BINGOTXOA
ZUNBATXOA 17:30

Kontzertutxoak 22:00

Erruko Txosnagunea

BAR
JUBILETxe
ERMUA

Hemen eskatu!

Erdikokale 21 · barjubiletxe.es · 641 50 69 03

Torrekua

Ondo pasa Santixauetan!



KARIKATO

TR. KANTABRIA N°1 BAJO
48.260 ERMUA
(BIZKAIA)

Ermua Zinema, zine xume baten istorio handia (eta II)

1955ean Ermua Zinema modura zabaldu zenetik kontaezinak dira bertan proiektatu diren filmak: hasieran zuri-beltzean, kolorez gero, Cinemascope, 3D-n... Aurreko hileko alean bere historia gertutik ezagutzeko aukera izan baguenen, oraingo honetan proiektatzearen alde teknikoari eta bestelakoei erreparatuko diegu.

Testua **ESTIBALITZ GONZÁLEZ**

Irudiak **IGNACIO URRETA**

Urruneko 1955 hartan herrian gogo handia zegoen Zinema berria ezagutzeko eta, jarduera kultural desberdinen bitartez inaugurazio ofiziala egin ostean, iritsi zen lehen zine emanaldia: 1953an estreinatu eta Alfred Hitchcock-ek zuzendutako *Yo confieso*, Montgomery Clift eta Anne Baxter protagonista legez zituena.

Bere funtzionamendua bermatuz, sorreratik herritar askok kolaboratu zuten, txakur handirik kobratu gabe. Noizean behin afari bat ematen zitzairen, erakusten zuten konpromisoa eta dedikazioa eskertze asmoz. Antoniok, esaterako, ondo ezagutu zituen Zinemaren barrenak: operadore modura jardun zuen, proiektzioa emateko ardura nagusiarekin. “On Teodoron zinia” modura ezagututa herritarren artean, jende askoren laguntzari esker zabaldu zen “batek bost duro, beste batek ehun pezeta... Herritarren ekarpen txikiak ziren gehiena, gero apurka-apurka itzultzen joan zirenak”, azpimarratu du.



Ermua Zinemako jatorrizko sarrera.

Pelikula gehienak “Todos los públicos” bezala katalogatuta zetozen eta asteburu bakoitzeko bi programatzen ziren: zapatuan helduentzat eta domekero, arratsaldeko hiruretan, txikienei zuzendutakoa; hura amaituta hasten ziren helduei begirako beste hiru saioak. Mota guztietako filmak ekartzen ziren, estreinatu berriak gutxi “dirutza ordaindu behar zen eta Zinema jarduera benefikoa zen”, argitu du Antoniok. Mantenu gastuak eta pelikulen alokairua ordaindu ostean geratzen zen dirua herriko kolektibo desberdinak laguntzeko bideratzen zen: gaixoak, adinez nagusiak...

Azetonarekin konponduta

Sarri-sarri proiektatzearen ondorioz pelikula-zinta batzuk siku eta erabat gastatuta etortzen zirenez, erraz apurtzen ziren, aretoko pantaila zuriz lagata. Kabina-tik entzuten ziren ikusleen haserreak, txistu-jotzeak, orroak, lurraren kontrako ostikadak...! “Proiektzioa geratu, aretoko argia ixiotu eta apurtutako zintaren bi aldeak elkar lotu behar izaten ziren. Fotogrametan salto handirik ez izateko, bi puntei azetona ematen zitzairen brotxatxo batekin, alde biak kutxila batekin harraskatu ostean. Segituan sikatzen zenez, zinta prest egoten zen berrirori proiektatzen jarraitzeko. Hortik nekez hautsiko zen berrirori!”, adierazi du Antoniok. Butakak ere sarri azaltzen ziren apurtuta, labanekin apropos zartatuta gaineko tapizatua edo ostikoz zulatuta aurreko jarlekuaren egurra. Haien konponketa lan neketsua eta astunetarikoa izaten zen Zinemaren boluntarioentzat.

Zine-operadorea adi beti: bere ardura zen makinak, pantaila eta soinua zaintzea, eta batez ere ahotsak eta irudia sinkronizatuta zihoazela frogatzea. Errobera txiki batekin objektiboan irudia garbi ateratzen zela

graduatzuten zuen ere. “Pelikula osoa metalezko 7-8 bobinatan etortzen zen eta makina-proiektorean ordena jakin baten sartu behar ziren, zenbakiaren hurrenkera zainduta. Erratu eta bigarren bobina esaterako laugarrenaren atzean ipini ezker, akabo: geratu proiektzioa, desmuntatu pelikula, topatu non dagoen okerra... Ez zitzaidan sekula gertatu eta pentsatze hutsak ere...!”, dio larri Antoniok.

Ossa VI

Zinera joateko zaletasun handia zegoen herrian eta 1979an Guria Zinea itxi izana igarri egin zen: erdigunetik gertuago, Zinemako ikuslegoak gora egin zuen nabarmen. Hango makinetako bat ekarri zen, Ossa VI bat (ikusgai Antzokiko bigarren solairuan, kale-tik ere bistan): honek aurrerapen handia suposatu zuen, ze pelikula guztia karrete bakarreen batzen zuen, proiektatu ahala, automatikoki. Haren aurretik bi makina izan zituzten, eta lehenengoan sartutako bobinen proiektzioa amaitu aurretik bigarrena piztu behar izaten zuten, hurrengo eszenekin jarraitu ahal izateko. “Hasieran elektrodoekin egiten zen lan, ikatzekin. Pentsa!”, argitu du Antoniok.

Iragarpenak ematen ziren ere, kristalezko plaka batzuetan margotutako irudien bitartez: euskarri baten sartu, laupabost segundoz proiektatu eta eskuz kentzen ziren, hurrengo sartu ahal izateko. “Descanso” idatzita zuen beste irudi batetik sofa baten etzandako andrazko batek atsedenerako unea iritsi zela gogoratzen zuen ere.

Hornitzaileak Bilbon zuen bere bulegoa, “San Mames ondoan eta sarritan eraman izan dut On Teodoro bertara”, gogoratu du Antoniok. Furgoneta batekin egiten zuten gero herriz herriko pelikula-bobinen banaketa, zaku astunak garraiatuz. Gaur egun pelikulok ez datoz jada zakuetan: Internet bidez baimentzen da proiektzioa, filmari dagokion kode baten bidez.

Zale batzuk pelikula guztietara joateko ohitura zuten, berdin zer botatzen zuten. *Titanic* izan zen Antonioren akorduz ikusle gehien erakarri zuenetako bat, aretoko 625 butakak beteta “kristona izan zen, funtzio guztietan jendez lepo goiko aldea ere... Arrakasta handia ere izan zuten antioju batzuk jantzita ikusi behar



Zinema ondoan Tonbolako laguntzaileetako batzuk.

ziren haiek, protagonistak pantailatik irtiten eta gainera zetorkizula ziruditenak”, azaldu du.

Bierronbodunak ere iritsi ziren. Pelikula baten eszena pixkat erotikoagoa edo pikanteagoa zetorrela ikusita, kabinatik pantailako objektiboaren parean kartoi bat ipintzeko eskatu zioten behin Antoniok. Zortzi-hamar segundoz ilunduta pantaila, aretoan itzelezko haserre eta ikusleen artean ikaragarritzko buila sortu zen. “Buah, a ze iskanbila behean! Klaro, onena kendu nien...!”, gogoratu du irribarretsua. “Hurrengoetan, pelikula zetorren moduan proiektatzen nuen, dena jarraian eta zentsura barik! Han ikusten ez zutena beste leku baten ikusiko zuten eta aurrera!”, gehitu du. Litxarrerria asko jaten zela dio, “zakuak eta zakuak zabor ateratzen genuen eta jate karraskadan egiten zen zarata estaltzeko, audioaren bolumena igotzen nuen, jende asko zegoenean egiten nuen bezala” argitu du.

Domeka gaueko azken saioa amaitu orduko aldatzen zen Izelaietako sarrerako kartelera. Kristal osteko sei fotograma haiek ziren hurrengo asterako amua, filma erromantikoa, poliziakoa, barregarria, beldurrezkoa edo abenturazkoa izango ote zen iragartzen zutenak. Eta aste betera, herriko zine zaleen gozamenerako grante-koloreko teloa berriro zabalduko zen!

**mari
asun**
LORADENDA
Diputazioa 9 - ERMUA - Tel. 943 174379

Otro Plan
como en casa

Erreserbak: 644 340 754

“Gugandik oso gertu altxor geologikoa daukagu”

Jone Redondo Eizagirre · Geoparkeko gida turistikoa



Ingurumen Zientzietan graduatu da aurtan Jone Redondo (Ermua, 2003), eta ikasketekin lotura estua duen lana burutzen dihardu: ingurumen zientzien dibulgazioa euskal kostaldeko Geoparkean, hain zuzen ere. Egunero, hainbat itsasbidaia egiten ditu, herrialde ezberdinetako bisitariei gure kostaldeko berezitasunak eta aberastasuna erakusteko.

Testua **DORLETA VIDAL**

Zelan suertatu zitzaizun Geoparkean lan egiteko aukera?

Unibertsitateko praktikak Begi Bistan enpresan egin ditut otsailetik maiatzera bitartean, eta bukatutakoan kontratua egin didate. Enpresa horrek zerbitzu ezberdinak ematen dizkio Geoparkeari (zientziaren dibulgazioa, kirol jarduerak...), eta nire lantokia Zumaian dago, bertatik abiatzen bainaiz itsasontzian flyscharen inguruko hitzaldiak ematen ditudanean. Mutrikun ere egoten naiz sarritan, Nautilus museoan, eta bertan fosilen didaktikak egiten ditut.

Nolakoak izaten dira itsasontzian egiten dituzun bidaiak?

Itsasbide ezberdinak daude, baina gehienetan Zumaiatik Sakonetarainoko joaten naiz. Bidaia horrek ordubate irauten du, eta bertan azaltzen dut zer den flyscha, zer den geoparkea, zer garrantzi duen inguru geologiko hori, nola sortu zen, hainbat bitxikeria inguruari buruz...

195 geoparke daude munduan, UNESCOk hala izendatuta. Zerk egiten du Geoparke hau berezi?

Flyschak nahiko ohikoak dira munduan, baina beste leku batzuetan apurtuta, tolestuta edo kopuru oso txikian agertzen dira. Gure kostaldeko flyschak, ordea, 14 kilometroko luzera dauka. Kaparik zaharrena



"Estimatzen dut jendea niregana hurbiltzea informazioa partekatzeko"

Mutrikun dago, eta 110 milio urte ditu; berriena, aldiz, Zumaian, eta 50 milioi urte ditu: bata eta bestearen artean 60 milioi urteko aldea dago, eta horrek leku oso interesgarria bihurtzen du Lurrari buruzko informazioa jasotzeko.

Uste duzu inguruko jendeak flyscha ezagutzen duela?
Uste dut Ermuko jendeak, adibidez, badakiela zer den, baina ez daki ezer formakuntzari buruz, ematen digun informazioa, atzean dagoen historia... Nik neuk ere ez nekien, eta asko ikasi dut lanari esker. Jendea ez da konturatzen ondoan altxor geologikoa daukagula, hain justu oso gertu daukagulako.

Zein da bisitarien profila?

Gehienak katalanak eta frantsesak dira, baina azkenaldian aleman, italiar eta ingeles ugari hurbildu zaizkigu, baita latinoamerikarrak ere: argentinar asko, mexikarrak...

Beste hizkuntza batzuetan ere aritu beharko zara...

Normalean gaztelaniaz aritzen naiz, baina egiten ditut saio batzuk euskaraz ere, eta talde pribatuentzako saioak, normalean, ingelesez izaten dira. Frantsesez hitz egin behar denean, lankide bat arduratzen da.

Eta adinari dagokionez, zer da ohikoena?

Familiak, jubilatutak... Esango nuke lengoaia nahiko teknikoak erabiltzen dugula, eta umeez ez dute askorik ulertzen. Eskolentzako saioak egiten ditugunean, aldiz, oinarritzak azaltzen dugu bakarrik, gero musika jarri eta paisaiaz gozatzen dugu.

Jendeak galderak egiten dizkizu?

Batzuetan bai, baina gehienak lotsatu egiten dira. Beste gutxi batzuk, zu harrapatzea doaz, zu baino gehiago dakitela erakustera-edo.

Gogoan daukazu zure lehen bidaia?

Bai, oso-oso urduri nengoen, baina lankide batekin joan nintzen, eta horrek lasaitu ninduen.

Anekdotarik daukazu?



Jone Redondo, hirugarrena ezkerretik hasita, lankideekin.

Askotan gertatu izan zait itsasontzian geologoren bat etortzea, eta bidaia bukatutakoan niregana etortzea datu gehiago edo informazioa partekatzera. Asko estimatzen dut.

Zenbat bidaia egin ditzakezu egunean?

Batzuetan bizpahiru izaten dira, eta egunik onenetan, gida bakoitzak sei bidaia egin ditzake. Bidaia horietako bakoitzean, patroia eta marinel bana datoz gurekin itsasontzian, eta 39 bisitari eraman ditzakegu itsasaldi bakoitzean.

Oinez ere egiten dituzu bidaia batzuk...

Bai, baina ez da ohikoa. Talde pribatuentzat egiten ditugu, edo itsaso zakarra dagoenean. Egun horietan Itzurruneko hondartzara joaten gara, San Telmora gero...

Itsasontzian edo oinez nahiago?

Askoz gehiago gustatzen zait itsasontzia. Onartu behar dut batzuetan beldur apur bat pasatu izan dudala, itsaso zakarra egon izan denean, baina tira, zentzudunak gara eta horrelakoetan portura bueltatzen gara.

Etorkizunean horrelako lan batean ikusten duzu zure burua?

Bai, izan daiteke. Asko gustatzen zait egiten ari naizena eta eroso sentitzen naiz publikoaren aurrean hitz egiten.






SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT

ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoa garatzen espezializatua dagoen ingeniaritza-enpresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

www.zermik.com
 Usaetxe plaza 6-8, behea
 Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)
 Telf: 943 23 10 12



Izarra Center ondoan, forjazko matxinoa, Izarra lantegian jardundako erreminta erraldoia eta ondoko ur-jauzi txikia.
Argazkilaria: Marga Pérez.



Euskal Birusak txikurixa zabalduko du

Aurten ere, Euskal Birusa Euskara Elkartek txikurixa zabaldu du Santixauetan. Uztailaren 18an eta 19an egon da zabalik, eta atek parez pare egongo dira ere 24an, 25ean 26an eta 27an. Euskal giroa sortzea eta autofinantzazioa handitzea dira txikurixaren helburuak.

Zabalik dugu berriro Txikurixa, eta aurten ere elizarako bideko arraindegi ohian izango gara, 2023an bezala, Aranburu Zenarruzabeitia familiak utzitako lokalean.

Ekimen honen helburuak dira euskararentzako leku atsegin bat sortzea eta



elkartearen autofinantzaziorako beharrezkoa den dirua lortzea, eta helburu horiekin bat egin dutenek hainbat eratan kolaboratu dezakete: zerbitzari bezala txandak eginez, patata-tortilak ekarritz...

Elizarako bideko
arraindegi ohian
egongo gara!

Eguerditik
goizera
arte zabalik!

Interesa dutenek euskalbirusa@gmail.com helbidera idatzi beharko dute. Horrez gain, jakina, kuadrillako errondan Txikurixa ere kontutan hartzea eskertuko dugu!

Uztailaren 25ean, gainera, ermuko dj batek saioa eskainiko du 00:00etan hasi eta 02:00etara bitartean.



ORBE
TOLDOS Y PERSIANAS

Toldoak / Ostalaritzako muntaiak / Instalakuntzak eta konponketak
Pertsianak / Segurtasun pertsianak / Pertsiana dekoratiboak
Motorizazioa / Manparak / Estoreak / Eltxo-sareak

Tallerra:
Zearreko Buelta 2
943 17 66 34 - 630 01 13 41
48260 Ermua (Bizkaia)

Erakusketa: Karabixa 1
48260 Ermua (Bizkaia)
943 17 98 60
persianasorbe@gmail.com

Santukua dorretxia



Fachada Sur de la Torre de Santucua.

Zerkaburu eskriturretan eta Santukua herritarrena ahotan. Idatzizko bere lehen aitzamena 1553 urtekua da, Cercaburu modura jasoz Derioko Artxibuak gordetzen daben dokumentu batek. Eleiz agiritegi berian, 1831 urtian eta urteburuko meza baten harira estreñieko agertuko da Santucua izenakin. Goienkalen, plaza inguratzen zeban Erdi Aroko Zerkiaren gaintxuan estrategikoki kokatuta, hiribildua babesten zeban gune hori baino beranduago altxau zan lorrotza dauka bere izenak. Bere kubo egitura karratu eta luzekiñagaitxik dorretxia izan zan, Gipuzkoatik Ermura sartzeko atiaren harrizko zaindari errespetagarria.



Baldespinako Markesa zan haren jabia eta zalditegi modura erabiltzen zeban itxuria. Eraikiñak ganbara haundixa ekanez, Aste Santuko prozesiñuetako santuen irudixak gordetzen ziran bertan; hortik Santukua izen herrikoia. Erdi-puntuzko arku batek edertzen zeban ate nagusixa eta haren buruan armarri bat zekan, Donejakue Bideko elementuekin, bertatik pasatzen zan erakusle. 1818an *La Voz* egunkarixak salmentan zeuala iragarri zeban, "hirigunian bertan, salgai bere lursail eta baserrirako lanabes guztiekin".

1923ko Gabonetan Jose Maria de Orbe y Gaytán de Ayala, Baldespinako V. Markesak saldu zotsen Urbano Mugerza Yarza ermuarrari eta haren emazte Pantxika Buruaga Azarloza mallabitarrari. Bertan bizi izan ziran bai eurak eta bai euren ondorengo Santukuanekuak, harik eta 1962an eraikin barrixak eiteko bota zan arte. Santa Ana auzoan etxe barrixa altxau zeban familixiak eta haxe da harrezkerotzik Santukua.



CAPRI
PIZZERIA
943 03 33 15

aral97.com

Luis Cañas	Cair
Amaren	Casas de Burbia
Cair	Bodegas Valdemar
Ehun	García de Olano
Txakoli Astobiza	Manzanos Wines
Pazo Señorans	Pernod Ricard Wines
Cava Oriol Rossell	Faustino García Martínez.

aral@aral97.com | Pol. Gaitondo-Goiikoa, Parc.7 - Pob.1 | 48269 Mallabia (Bizkaia)

nitida

T.943176075

Zure publizitatea

DROGETEN
ITTURRI

943 17 93 50

688 63 28 76

drogeten@gmail.com



TXABI ARNAL

Gaiaren alderdi egokia

"Haur literatura betidanik maite zuen. Heriotza, jakina, ez zuen batere gustuko..."

Urte batzuk igaro dira, urte dezente, doktore tesia defendatu zuen iraileko egun hartatik. *Heriotzaren eta doluaren tratamendua haur eta gazte literaturan* izan zen ikerketa lan hartan garatu zuen gaia. Haur literatura betidanik maite zuen. Heriotza, jakina, ez zuen batere gustuko. Baina doktore-tesiek gai originala edota gutxi ikertua eskatzen dute, eta huraxe izan zen, hain zuzen ere, haur literaturaren ikerketa-mundu txiki eta apalari egin nahi izan zion ekarpen txiki eta apala. Zuzendariei proposatu zien gaia. Egund gutxi eta luze batzuetan zalantzan egon ondoren, sinatu egin zuten.

Ikerketak aurrera egin ahala, harenganako interesa areagotu egin zitzaion. Eskerrak, ez baita batere atsegina izaten denboraren zati handi bat bost axola zaizun zerbait eskaintzea. Gure gizarteak (eta ekonomiak) asko daki honetaz. Baina, tira, goazen harira!

Tesiaren defentsa desiratuaren eta beldurgarriaren eguna iritsi zitzaion. Segur aski, erabakia aspaldi zegoen hartua, baina epaimahaiari bere lana justifikatzea tokatzen zitzaion, eta "akusatuari", izerdia botatzea.

Epaimahaikideetako batek metafora geometriko bat erabili zuen galdera egin aurretik. "Triangelu berritzaile bat marrazten ausartu zara, hiru alde sentikor eta irregularrek osatutakoa", esan zion. "Bere erpinen bidez haurtzaroa, literatura eta heriotza lotzen ditu. Baina, arren, zintzo erantzun: benetan uste al duzu heriotza gai egokia dela haurrekin hitz egiteko?"

Doktoregaiak arnasa hartu eta listua irentsi zuen erantzun aurretik:

"Gasteizko umeez ala Gazakoez ari zara?"

Aspaldiko istorio honen gainerakoa, zoritxarrez, etorkizunik gabeko oraina da.

1956

E R M U A

Zezen egunez, errekan lagun artean bazkaldu ostean, ohiturak agindu bezala plazan aureskua dantzatu zuten, Luis Albizu txistulariaren doinuez lagunduta. Ezkerretik eskumara daude Joseba Idigoras aurrelari, Agustin Aranberria, Hilario Garitaonandia eta Manolo Valdubieco atzelari, sokari amaiera ematen.



Aurreko hileko alean, Zinemaren inaugurazio eguneko argazkian izen batzuk faltan eta nahaste argitaratu genuen. Bertan ezker eskuma daude, besteak beste, Doroteo Gorritxategi, Emilio Jauregi, Juanito Gorritxategi, Ignacio Urreta, Vicente Izarra, Ignacio Onandia, Juanjo Telleria mutikoa, Teodoro Zuazua abadea, Bernardo San Ildefonso alkatea, Paco Izagirre, Juanito Amillategi eta Domingo Bustinduy idazkaria.

1977

M A L L A B I A



Argazki hau duela 48 urte inguru atera zen, Ermuko Zukusu jatetxean. Bertan agertzen diren emakumeak josten ikasten ibili ziren Mallabian, eta irakasle Belen Abendibar ibiltzen zen. Belenen arabera, Mikel Zarate kaleko 6. etxean elkartzen ziren josten ikasteko, normalean arratsaldean, eta batzuk afaltzeko orduan joaten ziren. 1977ko Santa Luzia egunean elkartu omen ziren, jostunen eguna ospatzeko. Argazkian agertzen dira: M^a Jesus Gonzalez, Luz M^a Bidaurre, Agurtzane Ormaetxea, Maritere Gabilondo, Belen Gabilondo, Belen Abendibar, Esther Galarza, Sagrario Abendibar, M^o Jesus Astarloa, M^a Nieves Ruiz, Josefina Ormaetxea, M^a Angeles Narbaiza, Angelines Carrillo, Maribel Moreno, Marife Barrio...

IRAGARKI LABURRAK

LAN ESKAINTZAK

Odontologo orokorra behar da Ermuko hortz klinika baterako, astean jardun bat edo birako. Bidali CV hortzclinika.4@gmail.com

Higienista/auxiliarra behar da haurdunaldiko baja baten ordezkapena egiteko Ermuko hortz klinika batean. Uztailetik abendura, lanaldi osorako. Bidali CV hortzclinika.4@gmail.com

LAN BILA

DBH eta Lehen Hezkuntzako matematikak, euskara eta beste ikasgaietako klaseak ematen ditut arratsaldeaz. C1 ingelesa eta euskara. 688739358

Neska euskalduna eskaintzen da haurrak goizez zein arratsaldeaz zaintzeko. Esperientzia eta magisteritza ikasketekin. 648625209.



Iragarkia edo zorion-agurra kaleratzeko, bidali mezua elektronikoa helbide honetara: drogeten@gmail.com
Azken eguna: **Irailaren19a.**



Uztailaren 28an
Zorionak **Inhar!** 8 urte beteko ditu gure futbolariak! Gozatu zure egunaz. Asko maite zaitugu! Musu handi bat etxeko guztion partez, bereziki Laidaren partez!



Uztailaren 26an
Zorionak **Jonathan!** 9 urte haundi! Zorionak etxekoan partez! Asko maite zaitugu. Egun bikaina pasa dezazula. Muxu potolo bat!



MUSIKA ESKOLA

- Akordeoia
- Biolina
- Biolontxelo
- Bonbardino
- Flauta
- Kantua
- Gitarra
- Gitarra elektrikoa
- Gitarra baxua
- Lengoaia musikala
- Klarineta
- Panderoa
- Perkusioa
- Pianoa
- Saxofoia
- Trikitrixa
- Tronboia
- Tronpeta
- Txistua

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00

albokamusikaeskola@hotmail.com



Entzumenaren doako azterketak
Audifonoetan azkenengo teknologia



Goienkale kalea (Ermua)
Tel: 943 172 454
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

ARRIETA CORDEVI

Etxetresna elektrikoak,
telebistak,
musika-ekipoak...
...prezio eta kalitate
ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA

Asteartetik ostiralera
00-12:00 15:00-19:00
arunbata 8:30-13:00

943 170474



ileapaindegia
Silvia
peluqueria

688819336

ABUZTUA
UDAKO ZINEA

Hilak 4:
"El maestro que prometió el mar" (+ 12 urte)

Hilak 6:
"Migrazioa. Bidaia ahatezi-na" (guztiontzat)

Hilak 11:
"Furiosa. Mad Max" (+ 16 urte)

Hilak 13:
"Del revés 2" (guztiontzat)

Hilak 18:
"Dogman" (+ 16 urte)

Hilak 20:
"Buffalo Kids" (euskaraz) (guztiontzat)

Hilak 25:
"20.000 especies de abejas" (+ 7 urte)

Hilak 27:
"El especialista" (+ 7 urte)
22:00etan.
Orbe Kardinalaren plazan.

IRAILA
ZINEA

6tik 8ra:
"Jurassic World. El renacer" + "Votemos"

13tik 15era:
"Sirat" + "13 días, 13 noches"

20tik 22ra:
"F1" + "Jone a veces"

27tik 29ra:
"Los Rose" + "Romería"
Ermua Antzokian.
Hainbat ordutegi.

IRAILA
ZINE-KLUBA

Hilak 4:
"Juliette en primavera"

Hilak 11:
"The last showgirl"

Hilak 18:
"Miss Carbón"

Hilak 25:
"Condenados"
Ermua Antzokian. 20:30ean.

IRAILA
UMEENTZAKO ZINEA

Hilak 7:
"Lilo & Stich"

Hilak 14:
"Cómo entrenar a tu dragón"

Hilak 21:
"Padre no hay más que uno 5"

Hilak 28:
"Heidi" (Euskaraz)
Ermua Antzokian. 17:00etan.

IRAILA
MUSIKA

Hilak 12:
Kontzertua: Versionarios.
(Extremadurako Zentroaren kultur astea). 20:30ean.
Extremadurako Zentroan.

Hilak 13:
Disco festa tardeo: DJ Iker B.
(Extremadurako Zentroaren kultur astea). 19:00etan.
Extremadurako Zentroan.

Hilak 19:
Opera proiektzioa: Verdiren "Nabucco" 20:30ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 8 €

Hilak 20:
Kontzertua: Eirband. (Hiru txikiak). 19:00etan. San Pelaio plazan.

IRAILA
FOLKEZBLAI

Hilak 11:
Kalejira: Foulareda + Alboka Musika Eskolako trikitilariak. 19:00etatik aurrera.

Hilak 12:
Ache Pa ti + Harribitxi + Millaño. 18:30etik aurrera.

Hilak 13:
Antía Caaveiro, Antón Lago eta Xosé Liz + Xara + Matazúa + Golconda. 13:00etatik aurrera.

Hilak 14:
Bentazaharreko Mutiko Alaiak + Entós + Gorrondate. 12:30etatik aurrera.
Orbe Kardinalaren plazan.

IRAILA
ANTZERKIA.

Hilak 26:
"¡Qué fantástica esta fiesta!", La Brecha taldearen eskutik. 20:30ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 10 €

IRAILA
UMEENTZAKO
EKITALDIAK

Hilak 9:
Klown emanaldia "La maleta de Lekim) + Txokolate-jana + Txutxeak. 17:30ean. Extremadurako Zentroan.

IRAILA
ERAKUSTALDIA

Irailaren 29tik urriaren 12ra:
Artarrai: 50 urte.
Lanegunetan: 18:00-20:00.
Asteburuetan: 12:00- 14:00.
Lobiano Kulturgunean.

IRAILA
BESTELAKOAK

8tik 14ra:
Extremadurako Zentroaren kultur astea. Extremadurako Zentroan eta San Pelaion.

Hilak 20:
Enpanadaren jaia. 11:00etatik aurrera. Orbe Kardinalaren plazan.

Hilak 21:
Aintzinako kotheen erakustaldia. 11:00etatik aurrera. Orbe Kardinalaren plazan.

Irailaren 27tik urriaren 5era:
Gaztela eta Leoneko Zentroaren kultur astea.

Patxi López



TXINDURRI
TALDEA
Tokian
tokiko



LA FORJA KAFETEGIA

Iberikoetan
espezialistak

Mayte

VI Centenario 5 - ERMUA
943 172 412

PRO
arraindegia



ITSASKIAK
ARRAIN FRESKOAK
ETA IZOZTUAK

Zubiaurre, 21
943 17 16 96
ERMUA



AMALUR
FISIOTERAPIA

688 61 98 96
zeharkale 12 bajo
48260 ERMUA

IRENE ESQUÉ col.1666 EGOITZ FORMOSO col.1675



irale
Horts Klinika
Clínica Dental

C/ Zeharkalea, 8
48260 Ermua, Bizkaia
Tel. 943 17 71 34

OSASUN GIDA



**Odontologia
Fisioterapia**

943 578 617
615 793 717
www.irazuklinika.com



Zuri egokitzen
den odontologia
La odontología
que se adapta a tí

Dra. OLATZ GARCÍA ARREGUI col. nº 1264

- P.A.D.I
- IMQ
- SANITAS
- DENTYRED
- AZKARAN
- OCASO

☎ 943 17 04 04
✉ info@clnicasanpelayo.com
📍 San Pelayo Zeharkalea 5
48260 Ermua (Bizkaia)



OSTEOPATIA
Pablo Lucena
Osteopata Eur Ost D0

📞 617 680 156
info@osteopatialucena.com
Probaleku 5 - Ermua (Bizkaia)



LEIRE MAYORA
PODOLOGOA

Erdikokale 1, 1. A
48260 Ermua
☎ 943 17 47 44

Osasun Gidan agertu nahi baduzu,
deitu 943 17 93 50 edo 688 63 28 76 telefonoetara,
edo idatzi drogeten@gmail.com helbidera.

MAITE LARBURU

akustikoa

UZTAILAK 22

ELIZPEAN

20:30ean



SANTIXAUETAN

EUSKARA

MINGAINEAN

